

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

### 3349

*28/2021 DEKRETUA, ekainaren 3koa, lehendakariarena, zeinaren bidez eguneratzen baita Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluko udalerrien ordezkarien izendapena.*

Lehendakariaren urriaren 24ko 30/2019 Dekretuaren bidez, eguneratu egin zen Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluko udalerrien ordezkarien izendapena.

Ondoren, Euskadiko Udalen Elkarteak bi ordezkapen proposatu dizkio lehendakariari.

Horregatik guztiagatik, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 85.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honako hau,

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Honako hauek Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluko kide izendatzea, udalerrien ordezkari gisa:

Titularra: Ander Añibarro Maestre jauna, Laudioko alkate-presidentea, Josune Irabien Marigorta andrearen ordezkari.

Titularra: Gurutze Etxezabal Iturrioz andrea, Oresako alkateordea, Eneko Maioz Ganboaren ordezkari.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Dekretu honek ematen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko ekainaren 3an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.